

KOMUNIKATUA COVID-19A DELA ETA

SAREAK JOSTEN lan-sare bat da, Gasteizko hainbat kolektiboren ordezkariak osatua; gizarte-errealitatea soziala ulertzen dugu bere kultura-, funtzio-, genero- eta belaunaldi-aniztasunean. Hiriko bizilagunei eta komunikabideei jakinarazi nahi diegu, COVID-19ak sortutako egoeraren bilakaera ikusita, Gasteizko Hirugarren Sektore Sozialean eragin negatiboa izan duela argi eta garbi.

Aldi berean, "VITORIA-GASTEIZ BERRAKTIBATZEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN ONDORIOEI BURUZKO GIZARTE KONTSEILUAREN TXOSTENEAN" jaso ziren osasun-alertaren egoerak sortutako zailtasun eta arazo asko, baita egoera hobetzeko ekintza-proposamenak egin ere.

Egoera horren aurrean, Sareak Jostenetik galdetegi bat pasa diegu hainbat arlotako hiriko erakunderi, jakiteko zein egoeratan dauden eta hurbilagotik ezagutzeko kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen nola eragin dien pandemiak.

Galdetegi hau hiru multzotan banatuta dago: pandemiaren inpaktua hartzaileengan, zerbitzu eta jardueretan eta boluntarioengan baita ordain-saria jasotzen dutenengan ere. (Sareakjosten.org webgunean txosten osoa ikus daiteke eta bertan jasotzen dira lortutako emaitzak).

Sareak Josten erakundean, bat gatoz txostenean jasotako ondorioekin, eta funtsezkotzat jotzen ditugun 3 gai azpimarratu nahi ditugu:

- **"Funtsezkoena" berriz definitzea.** Pandemiak eragindako aparteko egoera honetan, agerian geratu da "funtsezkoaren" definizioa, sozialki balio kontsumista eta jasanezina lortzera bideratu dena. Sareak Josten-en ustez, "Funtsezkoena" da pertsonen ongizate emozionala eta harremanetakoa erdigunean jartzea, non inork ez dituen bere oinarrizko eskubideak "asaltatuta" ikusten, eta, horrela, eredu sozialki jasangarri baten alde egiten du.
- **Publikoa denaren balioa.** Egoera ahulean dauden pertsonak dira kaltetuenak zerbitzu eta espazio publiko itxietara edo horietara iristeko zailtasunak izaten dituztelako. Beste behin ere, beren oinarrizko eskubideak murriztuta ikusten dituzte, eta desberdintasun handiagoak topatzen dituzte izapideak kudeatu, teknologiak edo baliabide desberdinak eskuratzeko orduan, eta, horrela, arrakalak areagotu eta desabantaila-egoera handiagoak sortzen dira.

- **"Administrazio publikoen eta elkarteen arteko" harremana.** Sareak Josten-etik uste dugu aldatu egin behar dela administrazio publikoen eta hirugarren sektore sozialaren arteko harremana. Komunikazio- eta lankidetzabide eraginkorrak sortu behar dira, harremana bertikala izan gabe ezta administrazioak finantzatzaile hutsak izan gabe ere. Arreta jarri behar dugu pertsonen bizi-kalitatea hobetzean eta bizkorrak izateko eta desabantaila-egoeran dauden pertsonen zirkulazioei eraginkortasunez heltzeko aukera emango diguten tresnak sortzean. La relación "público-asociativa".

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 26an